

SEKTORE MAHAIAREN BILERA

2016/06/28

1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA:

OSAKIDETZA:

Diotenez hilabete honetan amaitu beharra dago, eta gaur beren azken eskaintza aurkeztuko dute. Negoziatzeko prest agertu dira, baina uztailan epea amaituko da. Bi aste barru beste bilera batera deituko dute.

- 2016-EPE: EPE bateratu bat (2016-2017) egiteko prozesua negoziatzeko prest daude, eta kategoriak zelan banatu eztabaidagai izan daiteke.
- LEKUALDATZE-LEHIAKETA: azken EPEan eskainitako kategorien artetik 800 plaza dira (kategoria medikoak izan ezik, horiek aparteko lehiaketaren ondoan eskainiko dira), eta oinarriak negoziatzeko prest omen daude. Honela banatu dira kategoriak:
 - Erizainak: 316
 - Fisioterapeutak: 24
 - Emaginak: 18
 - TEL 76 (45 plaza sortu berriak)
 - Erizain-laguntzaileak: 156
 - Administrari-laguntzaileak: 153
 - Zelariak: 57
- Plantilla ugaltzea: ez dute eman plantillari buruzko argibiderik; beraz, ez dakigu zenbat plaza finkatu behar diren, egitura-kodea emanaz. Plantilla 697 plaza gehiagorekin ugaltzea proposatu dute.
 - 272 plaza, finkatzeko eta azpiegitura berriei atxikitzeko: berariaz aipatu dituzte hurrengo zentroak: Kontseilu Sanitarioa, Gernikako Ospitalea, Salburua-Zabalgana, Buenavista eta Basurtuko Kirurgia-blokea.
 - 425 plaza Urdulizko Ospitalerako.
- Aldi baterako Kontratazioaren Akordioa: ez dute argitu beren asmoa zein den: kontratazio-zerrenda bat edo bi izatea, eta puntu hori giltzarri da akordio bat egiteko. Akordiorik lortu ezean, 2011ko maiatzaren 9ko Kontratazio Akordioari eutsiko diotela esan dute. Alegazio sindikalak kontuan hartuz aldaketak proposatu dituzte, baina akordio bateratua lortzekotan bakarrik gauzatuko lirarteke:
 - Postu huts eta erreserbatuetan, nahi diren antolakunde sanitarioetan izena emateko aukera eskaini dute, osasun-arloka apuntatu beharrean (ELAk, eta beste batzuek, egindako eskaria).

- Uko egin ahal izateko arrazoen artean genero-bortizkeriaren peko egoeran egotea sartzea.
- Fisioterapia sartzea, zerrendak etengabe irekita duten kategorietan.
- Euskara ezagutzeko betekizuna sartzea behin-behineko postuetan, proportzio desberdinetan, kategoria eta lurraldea kontuan hartuz, bi salbuespen eginez:
 - Hiru hiru urteko dituztenak, 1-HE egiaztaturik badute, eta 50 urtetik gorakoak badira.
 - Hiru hiru urteko dituztenak, eta 55 urtetik gorakoak badira.
- Bitarteko postuen eskaintza telematikoa uztaillean: erizainak (293), erizain-laguntzaileak (144), administrari-laguntzaileak (190), zelariak (25), eta zerbitzu-langileak (24).
- Lizentziak eta baimenak: funtsean azken eskaintzari eutsi diote, bi gehiago sartuz:
 - Jaiotza-baimena bi astez luzatuko da, umea pisu txikia badu (2200 g-tik behera).
 - Azterketak egiteko baimenaren barruan erizaintzaren espezialitateetako proba, ohiz kanpoko bidetik egitekoa, sartuko da.
- Lanbide-garapena: eskaintza bere horretan mantendu dute.
- Urdulizko Ospitaleko postu-horniketa: barne-egokitzapena eta mugikortasuna gauzatu ondoren erdi bana egitea proposatu dute: zerbitzu-eginkizunak eta kontratazioa. Zenbait postutarako berariazko deialdiak egiteko aukera gordeko dute, baina kasuan kasuko antolakundearen esku utzi dute zehaztapena, eta behin betiko horniketa gerora negoziatuko dutela esan dute.
- Euskararen aparteko deialdia: azken proposamenari eutsi diote.

ELA

ELArentzat oso garrantzitsuak ziren gaiak mahaitik desagertu dira, batez ere ordezipen-irizpideen gaia. Sindikatuoi negoziazio-gaiak sartzeko aukera eskatu dugu, Osakidetza bere aldetik gaiak planteatzen dituen modu berean:

- EPE: plantillari buruzko argibideak eskatu ditugu, azterketa on bat egin ahal izateko. Deialdian birjartze-tasa hartu dute muga moduan, baina horrela behin-behinekotasunaren maila ez da jaitsiko.
- Lekualdatze-lehiaketa: gure alegazioak aurkeztu ditugu.
 - Kategoria eta plaza huts guztien deialdia.
 - Lekualdatze-lehiaketan zain geratu beharrean, ESlen eta Antolakunde etengabe irekien arteko mugikortasuna abiaraztea. Gogoan izan ESla eratu zirenetik jende askoren mugikortasuna izugarri mugatu dela.
 - Gardentasun-neurriak prozesuan.
 - Esperientzia eta euskara gai puntuagarri bakarrak izatea eskatu dugu, eta alegazio hau kontuan hartu ezean, puntuatzeko moduko prestakuntza kontrolatzea.
 - Esperientzia puntuaziorik altuena lortu duenaren puntuazioan topea finkatzea eskatzen dugu, eta hurrengoek proportzioan dagokiena eman.

- Prestakuntza bera behar duten postuetan, nahiz eta postu funtzional desberdinak izan, esperientzia %75ean puntuatzea eskatzen dugu, eta administrazioan esperientzia izatea %50ean.
- Espezialitate bat lortzen lan egindako denborari puntuazio bikoitza ematea eskatzen dugu.
- Barne-sustapeneko denbora lekualdatze-lehiaketarako ere kontuan hartzea eskatzen dugu.
- Lanean ari den antolakunde bereko zentroetara aurkeztu ahal izatea eskatzen dugu, aurreko lehiaketetan egin zen bezala.
- Plantilla ugaltzea: puntu horretaz ezin dugu iritzirik eman, plantillari buruzko benetako informaziorik gabe. Horregatik eraman dugu auzitara.
- Aldi baterako kontratazioa: alderdi guztiei eskatzen diegu argitzeko ea bi zerrendak mantentzearen alde dauden, ELAk eskatu duen bezala (inkesta bat egin genuen erabakitzeke) edo zerrenda bakarrera pasatzearen alde, SATSEk eskatu duen bezala. Halaber, Osakidetxari esan diogu puntu batzuk adostu daitezkeela, nahiz eta akordioaren puntu guztiak ez itxi. Guk funtsezko gai batzuk adostea eskaintzen diogu:
 - Zerrenden gardentasuna eta kontrol demokratikoa hobetzea.
 - Zerrendak kudeatzeko hobekuntzak.
 - Aldi baterako kontratazioa duintzea.
 - Euskara.
- Bitarteko kontratazioen eskaintza telematikoa: bi eskari egiten dugu:
 - Lehenbailehen abiaraztea.
 - Kategoría guztietako lanpostu huts guztiak eskaintzea.
- Lizentziak eta baimenak: Ez dute kontuan hartu ELAren ekarpen bat ere. Berriró adierazi ditugu.
- Lanbide Garapena: gai hori berriró epaitegian konpontzera eramatera bultzatzen ari direla esan diegu. ELAk bere burua eskaini du 2011ko deialdia amaitzeko modua adosteko, eta plantillaren zein osasun-zerbitzuaren mesedetan doan beste eredu bat adosteko. Lehendabiziko aldiz LAB ere prest dago lanbide-garapenaren eredua aldatzeko; horregatik, Osakidetxari esan diogu bi sindikatu dituela negoziatzeko prest, eta abagunea ez galtzeko.
- Urdulizko Ospitaleko postu-hornikuntza: Akordio bat lortzeko prest gaude, baina zenbait baldintza jartzen dugu:
 - Kategoría bat ere ez pribatizatzea.
 - Epe jakin baten barruan plaza guztiak behin betiko betetzea.
- Euskararen aparteko proba: Berriró esan diegu aukera paregabea galtzen ari direla. ELAk nahi zuen proba bat, zerbitzua euskaraz emateko benetan gai direnei titulazio bat emango ziena. Baina ahozko zatia, ez idatzizkoa, gainditzen dutenei geroko ikastaro berezi bat eskainiko zaie (hobe hori, ezer ez baino; baina hori ez da guk eskatu genuena). Eta ez da

onargarria aldi baterako pertsonalak proba horretara aurkezterik ez izatea.

2.- EGITURA-DEKRETUA:

Osakidetzak proiektua aurkeztu du, eta guk gure iritzia emango dugu (hurrengo egunetan argitaratuko ditugu alegazioak).

3.- HAUTAKETAREN ETA HORNIKUNTZAREN DEKRETUA

Berdin.

4.- GALDE-ESKEAK:

ELAk zenbait galdera egin du:

- Laboralentzako 2015eko zahar-egunen epaiak ikusita, galdetu dugu ea Osakidetzak epaiak beteko dituen edo demanda gehiago sartzera behartuko gaituen. Erantzuna: 2016ko zahar-egunak emateko erabakiari eutsiko diote, baina ez 2015ekoak.
- Funtzio Publikoan jarraibide bat aurkeztu da, lege-aldaketa batekin: adingabeen kontrako sexu-delituen aurrekari penalak dituztenak ez kontratatzea adingabeekin ohiko harremanak dituzten lanpostuetan. Galdetu dugu ea Osakidetzak egokituko duen agindu hori. Eta erantzun digute Sektore Mahaiaren hurrengo bileran jarraibide-zirriborro bat helaraziko digutela.
- Amara Berri anbulatorioko langileek zentroko lurrazpiko aparkalekua egokitzea eskatu dute. Galdetu dugu ea egiteko asmorik dagoen. Erantzuna: kezka hori Donostialdeko ESIra igorri dute.
- Erizainen preskripzioaren Euskal Autonomia Erkidegoko proiektu berriaren izapidetzean entzunaldia emango diete sindikatuei? Erantzuna: galdetuko dute.
- Olagibelgo Izpien Zerbitzua ez ixteko eskatu dugu.
- Deba Goieneko AuzoLagun-en jarduera kontrolatzeko eskatu dugu, Osakidetzako garbitzaileen ordezkariak egiten baititu.